ERRAMU DOMEKEA

Bedeinkatua
Jaunaren izenean datorrena!

HOSANNA! HOSANNA!

HOSANNA ZERU-GOIENETAN!

HOSANNA, HOSANNA, HOSANNA, HOSANNA ZERUEN GOIENETAN

Dabid erregearen semea dogu
Jesus: Hosanna!
Jerusalemen sartzean danok
gorets daigun: Hosanna!
Aintza ta goralpena zuri, Jesus,
Jauna!

Bedeinkatua
Jaunaren izenean datorrena!

HOSANNA! HOSANNA!

HOSANNA ZERU-GOIENETAN!





† Jaunak esana.

ESKERRAK ZURI, JAUNA.

ENE JAINKO, ENE JAINKO: ZERGAITIK ITZI NOZU ESKUTIK?

Ikusten nabenek burla egiten deuste, ezpanak okertuz, buruari eraginez: «Jaunagana jo dau, libratu dagiala! Salbatu dagiala, hainbeste maite badau». R/.

ENE JAINKO, ENE JAINKO:
ZERGAITIK ITZI NOZU ESKUTIK?

Txakur-taldeak nau inguratzen,

gaizkile-multzoak erdian hartzen.

Esku-oinak zulatu deustez,

hazur guztiak zenbatu leikedaz.

R/.

ENE JAINKO, ENE JAINKO: ZERGAITIK ITZI NOZU ESKUTIK?

Nire jantziak banatzen dabez,

nire soinekoa zotz egiten.

Baina Zu, Jauna, ez egon urrun!

Ene indar, zatoz laster niri

laguntzera. R/.

ENE JAINKO, ENE JAINKO:
ZERGAITIK ITZI NOZU ESKUTIK?

Iragarriko deutset zure izena neure
senideei, †
goratuko zaitut batzarraren erdian.
Goratu egizue Jauna, begirune
deutsazuenok;
ospatu egizue, Jakoben ondorengo
guztiok,
izan haren bildur, Israelen seme-





† Jaunak esana.

ESKERRAK ZURI, JAUNA.

AINTZA, JESUS,

ZURI BETI:

ZEU ZARA GURE ARGI!

Kristo gugaitik menpeko egin zan
heriotzaraino,
kurutzeko heriotzaraino.
Horregaitik Jainkoak goratu egin
eban
eta izen guztien gaineko izena
emon eutsan.

† Jauna zuekin.

ETA ZURE ESPIRITUAREKIN

† Jesu Kristo gure Jaunaren Nekaldi
san Markosen liburutik.

AINTZA ZURI, JAUNA.

† Jaunak esana.



ESKERRAK
ZURI, JAUNA.

† Egin daigun otoitz.

AGERTU GURI, JAUNA

ZURE ERRUKIA.

† Bedeinkatua zu, Jauna, zeru-lurren.

. . .

BEDEINKATUA ZU,
JAUNA,
ORAIN ETA BETI.

Senideok: egin daigun otoitz…

…

JAINKOA GORESTEKO
ETA GIZAKIA
SALBATZEKO.

Jauna zuekin

ETA ZURE ESPIRITUAREKIN

Gora bihotzak

JAUNAGAN DAUKAGUZ

Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari

EGOKI DA ETA ZUZEN

SANTU, SANTU, SANTUA

DIRAN GUZTIEN JAINKO JAUNA.

ZERU-LURRAK BETERIK DAUKAZ

ZURE DISTIRAK.

HOSANNA, ZERU GOIENETAN!

BEDEINKATUA

JAUNAREN IZENEAN DATORRENA.

HOSANNA, ZERU GOIENETAN!

† Hau da sinismenaren misterioa.

ZURE KURUTZE
TA BIZTUERAZ
MUNDUAREN SALBATZAILE
ZARANA
SALBAU GAGIZUZ,
JESUS JAUNA.

Gure Aita,

zeruetan zarana,

santu izan bedi zure izena

etor bedi zure erreinua,

egin bedi zure nahia,

zeruan bezela lurrean ere.

Emoiguzu gaur
egun honetako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk ere geure zordunei
parkatzen deutsegun ezkero,
ez eiguzu itzi
tenta*zi*noan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

ZEUREA DOZU

ERREGETZA,

ZEUREAK

OSPE TA INDARRA, ORAIN

ETA BETI.

Jaunaren bakea
beti zuekin

ETA ZURE

ESPIRITUAREKIN

Jaungoikoaren Bildotsa zeuk kentzen dozu munduko pekatua...

...ERRUKI JAUNA
...ERRUKI JAUNA
...EMOIGUZU BAKEA.

JAUNA, NI EZ NAZ INOR ZU NIRE ETXEAN SARTZEKO BAINA ESAIZU HITZ BAT ETA OSATUKO NAZ.

Jaungoikoaren
hegoenpean:
ze bakean, ze bakean!
Indar guztiak dituenaren
gerizpean, gerizpean.
Jauna, nik dinot:
"Nire gerizpe dot zuregan;
bihotz guztiaz nago
Jaunaren eskuetan."

Jauna zuekin

Eta zure espirituareki n

Bedeinka zaizela...

AMEN

JAUNGOIKO SANTUA

JAUNGOIKO_INDARTSUA

JAUNGOIKO_HILEZKORRA:

GATX GUZTIETATIK

GORDE GAGIZUZ, JAUNA.

Zoaze Jaunaren
bakean.
ESKERRAK JAINKOAR

SANTU, SANTU, SANTUA (XIX)

S. Salaberri



ERRAMU DOMEKEA

ERRAMU EGUNERAKO: HOSANNA

C. ERDOZAIN





ENE JAINKO, ENE JAINKO: ZERGAITIK ITZI NOZU ESKUTIK?

Ikusten nabenek burla egiten deuste, ezpanak okertuz, buruari eraginez: «Jaunagana jo dau, libratu dagiala! Salbatu dagiala, hainbeste maite badau». R/.